


30 urtetik beherako gazte emantzipatu gehienek alokairua aukeratzen dute


30 urtetik 34 urterako taldean, emantzipatutako gehienek ez dute beren etxebizitza alokatu, baina aukera honek pisu handiagoa du aurreko urteekin konparatuta

30 urtetik beherako gazte emantzipatu gehienak alokatutako etxe batean bizi dira (% 73,6). 30-34 urteko pertsonen taldean ordea, ia pertsona emantzipatuen erdiak (% 48,0) beren etxebizitza erosi dute. Ehuneko hori alokairuan bizi direnen ehunekoa (% 43,5) baino handiagoa da.

Adin horretan eta 30 urtetik beherako taldean etxebizitza erosi duten pertsona emantzipatuen ehunekoaren arteko aldea 30 puntukoa da.




Nolanahi ere, 30-34 urteko pertsonen taldean, beren egoitzako etxebizitza erosi dutenen ehunekoak behera egin du azken urteotan, 30 urtetik beherakoaren artean dagoen joera berdina izanik: 2011n, 30-34 urteko pertsona emantzipatuen % 58,6 ziren, eta 2015ean, berriz, % 48,0. Aldiz, gora egin du alokairuan bizi direnen ehunekoak, bai eta oinordetza edo dohaintza bidez jasotako zein aldi baterako lagatako etxebizitza batean bizi direnen ehunekoak ere.



Beren burua kreditu batean hipotekatu nahi ez izatea da aipatzen den arrazoi garrantzitsuenaren alokairua aukeratu duten 16-29 urteko gazte emantzipatuen taldean (% 42,5ek eman dute arrazoi hori). Alokairuan bizi diren 30 eta 34 urte bitartekoaren artean ere hori da gehien errepikatutako azalpena (% 46,4k emanda).

Aurreko urteetako datuak aztertuz gero, ikusten da 2011tik 2015era asko handitu dela beren burua kreditu batean hipotekatu nahi ez izateagatik alokairua aukeratu duten gazteen ehunekoa, aztertutako bi adin-taldeetan.



Datu hauek [Gazteen Euskal Behatokiak](#) argitaratu berri duen "[Gazteen emantzipazioa Euskadin 2015](#)" liburutik hartu dira.

Azterketaren oinarria 16-29 urteko gazteek gai horren inguruko inkesta espezifikoko bati emandako erantzunak dira. Galdera berdinak egin zaizkie 30-34 urteko taldekoei, aztertzeko nola aldatzen den, edo ez, pertsona gazteen bizitegi-egoera adinean aurrera egin ahala. Guztira, Euskadin bizi diren 16-34 urteko ia 2.000 pertsona gazte hartu dute parte.